



## Emakume-Bazkunak ¿zertako?

**E**USKADIKO uri banaka-askotan emakume abertzaleak eratutzen ikusita, gogatsuak ez diran askok galdetuko dute: ¿Emakumeen Bazkunak, zertako? ¿Emakumeari bai dagokio oretariko ardurarik? ¿Ez da ba Jaungoikoak sendi bañurako egiña?

Bai orixe. Gizasemeen laguntzat, beronen semien amatzat gure Jaungoikoak egin gaitu-ta, esan beańik ez, amak amatasunak ezańita sendi bańuan bazkun berezi ta deunak dituztela; baita ama direnak eta ez geranok, guziok, gizasemen lagun bezela, gizartean bearkun orokańak ditugula ere.

Ez gera bańa gizasemien lagun besterik; eta gizarteko gure bearkunak onenbestean bakańik artu bear ditugulakoan nago; sendi bańuan, bere menpean, bereziki dagozkigun gauzetan arduratzen geran bezela, senditik at, obeto esateko, senide arteak dagin sendi txikitik at, abendak dagin sendi aundi bańuan ere gizasemien menpean eta geuri dagozkigun

gauzetan bakańik arduratu bear degula; besterka egiñez ona, egin beańean, kalterakoak izan ez gaitezen.

Au bańa zenbaitek ain mee uler-tzen du, bere bazkunetatik at ez irteteańen, bearkun oyen bańuan sartu ere ez du nai izaten, eta sartzten ez dalako, irteten duana bezela kanpoan gelditzen da, egin bear leukenik egin gabe, berdin, on egin beańean gizartean kaltegańi izanik. Eta emakume artean geyen geyenen itxumena au, abeńi'akiko beintzat.

Espanar andre idazle batek zesan: «La patria que para el hombre es madre, para la mujer es hijo». Gizasemearentzat Ama dan abeńia, seme da emakumearentzat.

Benetan, seme-alabak bear bezela asi ta mendutzen ditun amak, bear bezelako aberkideak dagizki; bearkun au betetzen ez duanak, kalte ori abeńiari ezartzen dion bezela; emakumeak bere magalean azten duan bezelańoa izango da ba, Jaungoikoak bere euskai Abeńiari eman dion semea.

Alde onetatik ba, egiz, aberiakiko emakumea Ama da.

Baña gure Jaungoikoak emakume guziak ez ditu egin Ama izateko; Ama diranak ere ez amatasunak ezartzen dizkieten bearkunak bakañik betetzeko, ta bai gu, zioz gizasemaren lagun bezelaberonekin batere gizarteko gure bearkuaak beteaz, sendi, eñi ta aberiak Beregana zuzentzeko.

Gizasemeai dagozkien arazoak guretzat egokiak ez izateak, ez gaitu geure geureak ditugun beste batzuk aintzat artu beařetik azkatzten; eta egi guzi abek gogoan ditugula, beste aldeetakoak bezela emakume euzkotañak zerbaitetan adorez ekin beařean arkitzen gera.

Eusko-Abertzale-Alderdiak guzi au gogoan duala Emakume-Abertzale-Batza irasi du; baita egunetik egunera, urietan bazkun abek ugalduez dijoaz. Etzazu ema-

kume, zure eñian besteak onetan nabaituta, ezpañak zimurtuta aurka ekin: ¿Emakumeak zertako onelako arazoetan sartu?

¿Zertako?... Gure Jaungoikoak bakoitzari beretzat eman dion aberiakiko bearkunak betetzen ikasteko; ta abek beteaz, Jaungoikoak beretzat egin duan gure Euskadi maitea, beregana zuzentzeko.

Zuk beintzat emakume ARGIA-ren irakurle euskeltzalea, zure izkuntza maite dezu-ta, or nunbait zure Abeñia ere. Zerana zerala zaar, gazte, eskondu, eskonge, aberats edo txiro ez ukatu zure alegiña galzorian arkitzen dan zure aberi maiteari, ta onetarako ¿zer oberik zure beste aizpaz elkartzea baño?

Oñra ba zuretzat Emakume-Abertzale Batza.

Tene

---

**SASTRERIA** Urutizkiña  
1-36-97  
**BUENOS AIRES**  
ARJENTINAKO  
ERARA  
EGINDAKO  
JANTZIAK  
**MIRAKRUZ, 13**  
**DONOSTIA**